


# Nerabeentzako zerbitzuko hezitzailea

Sustapenean nerabeekin lan egiten duten hezitzaileen profila





# AURKIBIDEA

<b>PROFILARI BURUZ</b>	<b>2</b>
<b>AURKEZPENA</b>	<b>4</b>
<b>I. ATALA: POSTUAREN EZAUGARRIAK</b>	<b>6</b>
Postuaren izena	8
Postuaren deskribapena	10
Koordinatzaile Teknikoa	18
Lanpostuaren azterketa	20
<b>II. ATALA: KONPETENTZIAK</b>	<b>21</b>
Jakintzak eta gaitasunak	22
Prestakuntza	24

# PROFILARI BURUZ

Sustapenean nerabeekin lan egiten duten hezitzaileen profilaren helburua da Nerabeentzako zerbitzuko hezitzaileen funtzioak eta konpetentziak definitzea, erreferentziazko markoa izango den eredu estandar bat osatuz. Horrekin batera, profilak hezitzaileen lanaren garrantzia ikusaraztea eta errekonozimendua aitortzea ahalbidetuko du.

Nerabeentzako zerbitzuan sustapeneko teknikariarekin batera hezitzaile profesionalak lan egingo dute eta “hezkuntza-taldea” osatuko dute beti. Profilean jasotzen diren gaitasunak, jarrerak eta betekizunak taldean eman behar dira, zerbitzuan gutxienez bi profesional (hezitzaile) izan behar direlako.

Lan-taldea osatzen duen koordinatzaile teknikoaren irudia ere jasotzen da dokumentuan, haren funtzioak zehaztuz. Hezitzailea “egiten duena” izango da eta koordinatzailea “egiten laguntzen duena”.

Nerabeentzako zerbitzuan lan egingo duten profesionalak ezagutza eta konpetentzia espezifikokoak behar dituzte gizarte-hezkuntzako esku-hartzea garatzeko. Ekipamenduan eta kokatzen den komunitatearen arabera, hezitzaileen eginbeharrak eta hartu beharreko ardurak desberdinak izango dira, baina, hezitzaile guztiek erantzungo diete nerabeentzako zerbitzuko helburuei: nerabe guztientzako zerbitzua izatea, izaera hezitzailekoa eta komunitatean txertatua, nerabeez arduratzen diren beste eragileekin koordinatuta, eta modu antolatuan eta planifikatuan lan egitea.

Profil honen asmoa da haurren eta gazteen sustapeneko teknikariei, erakundeei, entitateei, lan hezitzailea egiteko interesa duten guztiei eta nerabeez arduratzen diren beste profesionalei informazioa eta orientazioa eskaintzea. Era berean, egungo gazteleketan lanean ari diren hezitzaileentzat erreferentzia puntu izatea espero da, egiten duten lanaren garrantzia azpimarratzeko, hobetzeko eta indartzeko.

Nerabeentzako zerbitzuaren garapenean hezitzaileen profila, haurren eta gazteen sustapeneko teknikariaren profilarekin batera aztertzea beharrezkoa ikusten dugu. Erreferentziazko tresna, baina aldi berean tokiko eremu bakoitzean zehaztapen-modu desberdinak bultzatzeko proposamen bat ere bada.

Proposamen ausarta izatea nahi da, profesionalak ematen duten arreta adore-emailea, hezitzailea, parte-hartzailea eta erantzukizun-emailea izan dadin. Dokumentu dinamikoa eta irekia da. Hain zuzen ere, gure asmoa hiru urtean behin dokumentua berrikusi eta zuzenketak eta ekarpenak egitea da.




Dokumentua, bi atal nagusitan banatuta dago: batetik, postuaren ezaugarriak eta, bestetik, konpetentziak.

## I. atala: Postuaren ezaugarriak

- Postuaren izena
- Postuaren deskribapena
  - Helburuak
  - Funtzioak (egitekoak eta produktuak)
- Koordinatzaile teknikoa
- Lanpostuaren azterketa
  - Hitzarmena eta kategoria
  - Lanaren arriskuak eta indarguneak

## II. atala: Konpetentziak

- Jakintzak eta gaitasunak
- Prestakuntza



# Aurkezpena



## Zergatik lan hezitzailea nerabeekin?

Nerabeentzako zerbitzua sustapeneko zerbitzua da, aukerak eta abaguneak sortzen dituena. Bertan, hezitzaileen taldea, harreman eragingarri bat sortzeko gaitasuna duten eta prest dauden hezitzaileez osaturikoa, funtsezko elementua izango da.

Nerabeentzako zerbitzuko arretak, nerabearen hezkuntza-beharrei erantzungo die dimentsio pertsonalean, sozialean eta kulturean.

Besteak beste:


- Nork bere burua argitzea eta munduan kokatzea
- Komunikazioaren eta etengabeko ikaskuntzaren gizar-tean ikastea
- Sortzea, adieraztea, komunikatzea
- Arriskuak kudeatzen ikastea
- Autonomiaz eta erantzukizunez aritzeko beharra
- Besteekin bizitzen ikastea

Nerabezaroa ez da etapa berezi bat bakarrik; hezteak, laguntzeak, eragina izateak, nerabezaroan berezitasun batzuk dituzte. Beraz, nerabe-estiloarekin eta nerabe-argumentuekin konektatzen duten pertsonak arituko dira nerabeentzako zerbitzuan, hezitzaileak, erreferentzia onen sorrera ahalbidetuko duten hezitzaileak.

## Esku-hartzearen ikuspegi komunitarioa


Nerabeentzako zerbitzua gizarte-hezkuntzako zerbitzua denez, nerabeen garapenaren ardura eta hezteko asmoa du. Dimentsio sozial eta kulturaletik abiatuta, zerbitzua komunitarioa izan behar du.

Horretarako, hezitzaileen esku-hartzeak eta zerbitzua komunitatean txertatzeko xedearekin, ondorengo elementuei erantzungo die: komunitatean parte hartzea, ingurunea ezagutzea eta ulertzea eta beste profesionalekin, baliabideekin eta zerbitzuekin hezkuntza-ardurak partekatzea lan-sarea osatuz.



# I. atala


## Postuaren ezaugarriak





*Pertsonalki eta profesionalki aberasgarria,  
Pertsonekin egiten delako lana,  
Harremana delako helburua...  
Dinamikoa, inoiz errepikakorra ez dena...  
Berria eta ezezaguna: beti gehiago egin daitekeen  
sentsazioa...  
(Hezitzailea)*

*Harremana da gure tresna,  
Nerabeekiko gertutasuna landuz,  
ditugun helburuak lortu...  
(Hezitzailea)*



# Postuaren izena

## **Nerabeentzako zerbitzuko hezitzailea**

Nerabeentzako zerbitzuko gizarte-hezkuntzako esku-hartzea hezitzaileen esku dago.

## **Hezitzailea**

Nerabeen garapen pertsonalean eta sozialean laguntzeko, parte-hartzea bultzatzeko eta komunitatean integrazeko, beste arloko profesionalekin batera gizarte-hezkuntzako esku-hartzea egiten duen erreferentea da.

Gizarte-hezkuntzako programak garatzeko eta hezitzaileen lana osatzeko, koordinatzaileak laguntza teknikoa burutuko du hezitzaileekin elkarlanean.

Nerabeentzako zerbitzuan arituko da, balio eta irizpide jakin batzuk kontuan hartuta:

- Sustapenetik nerabeei aukerak eskainiz
- Erantzukizun publikoa duen zerbitzuak gizartean parte hartuz
- Berdintasuna, ekitatea eta aniztasuna bermatuz
- Gizarte-hezkuntzako esku-hartzea generoaren ikuspegitik landuz
- Nerabeen artean euskararen erabilera sustatuz
- Proaktibitatea, hurbiltasuna, pertsonalizazioa, jarraipena eta prebentzioa jorratuz
- Koordinazioa eta sare-lana eginez
- Jakintzan oinarritutako kalitatezko esku-hartzea garatuz

*Nerabeen heltze-prozesuan parte hartu eta positiboki eragiten dugun profesionalak izaten saiatzen gara  
(Hezitzailea)*



Nerabeentzako zerbitzuko hezitzaileen ardurak, hiru lan-eremutan bana daitezke:

Zergatik?

Zer?

Nola?

### FUNTSATZEA

Nerabeen beharrak identifikatzea eta horiei erantzutea.

Arrisku-egoerak detektatzea.

Esku-hartzearen metodologia, estiloa eta ezaugarriak adostea eta definitzea.

Nerabeen parte-hartze aktiboa sustatzea.

Ezagutzaren eguneraketa eta etengabeko prestakuntza.

### ARRETA ZUZENA

Nerabeekin ekipamenduan nahiz ekipamendutik kanpo egin beharreko lan pertsonalizatua.

Taldeen dinamizazioa.

Nerabeen jarraipen bateratua, lan-talde osoak egina.

Lan komunitarioan eragitea.




### ZEHARKAKO ARRETA

Lan-taldearen koordinazioa.

Erakundeen arteko koordinazioa.

Beste profesional batzuekiko koordinazioa.

Plangintza-sistema betetzea.



Goian aipatu dugun ardura-multzoa, kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko lan profesionalaren adierazgarria da eta funtzioen garapenarekin zehaztuko da.

# Postuaren deskribapena

## HELBURUAK

Sustapenean nerabeekin lan egiten duten hezitzaileak nerabeentzako zerbitzuaren helburuak burutzen ahaleginduko dira, nerabeei behar bezalako arreta emateko.

## ZERGATIK?

### 1. Nerabeentzako zerbitzua.

Nerabezaroan eta nerabeen zerbitzura dagoen egitura erreferentziala izatea (hurbilekoa, gertukoa eta jarraitua).

### 2. Esku-hartze hezitzailea.

Nerabeen garapen eta eraikuntza pertsonalean laguntzea trantsizioak erraztuz.

## ZER?

### 3. Hezkuntza-markoak.

Esku hartzeko espazio desberdinak, eragina dutenak eta nerabeen beharretara egokituak sortzea, elkarren osagarri direnak eta beste zerbitzuetan eskaintzen dena konpentsatzen dutenak.

### 4. Eremu komunitarioa.

Nerabe-izaerei eta haien zailtasunei arreta emateko sareko lan-sistema komunitario batean parte hartzea.

## NOLA?

### 5. Besteekin koordinatuta.

Nerabeez arduratzen diren beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin haiei arreta emateko modu egokiak eta eraginkorrak sortzea eta partekatzea.

### 6. Antolatutako zerbitzua.

Antolakuntza mailan nahiz arlo tekniko-profesionalean beharrezkoak diren betebeharrei eta baldintzei erantzutea, nerabeei arreta egokia emateko eta kalitatezko esku-hartzea garatzeko.

### 7. Planifikatutako zerbitzua.

Nerabeentzako arretari eta haien beharrei eman beharreko erantzun globala, bai eta horretarako definitu diren ekintzen programazioa ere, estrategikoki eta fase bakoitzean planifikatzea.



## FUNTZIOAK (Egitekoak eta Produktuak)

Ondoren, funtzio eta egiteko nagusien proposamen bat aurkezten da, etorkizunean dokumentua berriz aztertzen de-nean osatu eta doitu daitekeena.

### NERABEENTZAKO ZERBITZUA

1. Nerabeen beharrak ebaluatzeko prozesuan parte hartu.

- Ingurunea ezagutu.
- Nerabearoa ezagutu eta nerabe-izaera eta sentimen-dua ulertu.
- Nerabeak behatu.
- Nerabeen beharrak (orokorrak, taldeenak, bakoitzare-nak, behar bereziak eta egoera zailean daudenenak, familiarenak, zerbitzua duen komunitatearenak) eta es-kaerak antzeman.
- Arrisku-egoerak eta gizarte-bazterketak detektatu.

2. Zerbitzuaren funtsatze-fasean parte hartu

- Zerbitzuaren gabeziak detektatu eta hobetzeko alder-diak proposatu.
- Zerbitzuetatik eta baliabideetatik sortutako beharrak definitu.

3. Nerabe guztien parte-hartzea sustatu (neskak eta mutilak, koadrilak, bakarrik daudenak, nerabe desberdinak, zailtasu-nak dituzten nerabeak).

- Aldizkako ekintza proaktiboak bideratu nerabeen parte hartzea sustatzeko.
- Parte hartzeko formulak eta dinamika zehaztu.

4. Nerabeei buruzko ideia positiboak sortzen lagundu komuni-tatean eta inguruan.

5. Nerabeen familiengana hurbildu.

- Familiak ezagutu eta beraiekin harremanak sortu eta erantzunak ahalbidetu.
- Familien konpromisoa eta parte-hartzea ahalbidetu.

6. Nerabeez arduratzen diren beste eragileei zerbitzuan parte hartzen lagundu.

- Nerabeei dagozkien taxutze edo eratze onuragarriak sortzen lagundu.

### Produktuak

- Baliabideen gida: herriko zerbitzuak eta baliabideak.
- Dokumentu teknikoak.
- Araudia
- Estatistikak
- ...



## ESKU-HARTZE HEZITZAILEA

1. Nerabeen hezkuntza-berezitasuna ulertu, hezteko, laguntzeko eta eragina izateko.
  - Nerabeen heziketa-ibilbideak edo -egiturak eratzten lagundu.
  - Nerabeei autonomia garatzen eta baliabide pertsonalak eskuratzen lagundu.
  - Nerabeen arriskuen kudeaketa egokia egin.
  - Nerabeen parte-hartzea sustatu espazioaren dinamikari.
2. Zerbitzuaren zeharkako lerroak (inklusioa, berdintasuna eta euskara) sendotu.
3. Prestakuntza eta trebakuntza-plana garatzen lagundu.
  - Talde osoaren prestakuntza-beharrak identifikatzen lagundu.
  - Prestakuntza-ikastaroak bilatu, proposatu eta adostu koordinatzaile teknikoarekin.
  - Etengabeko prestakuntza-saioetan parte hartu.
  - Lurralde mailako hezitzaileen foroetan parte hartu.
4. Zerbitzuaren kalitatearen konpromisoa hartu.
  - Zerbitzuaren funtzionamendu egokiaz arduratu.
  - Arreta emateko modu egoki eta eraginkorrei buruzko eztabaida sustatu.

- Zerbitzua baloratzeko eta berritzeko aukera ematen duten hausnarketak egin.

### Produktuak

- Prozedurak eta jarraibidea
- Dokumentu teknikoak
- Prestakuntza-plana
- Galdeketak
- ...



## HEZKUNTZA-MARKOA




1. Gizarte eta heziketako esku-hartzea definitu.
  - Espazioa nerabeentzat eta nerabeekin eraiki.
  - Esku-hartze hezitzailea, inklusiboa eta integratzailea garatu.
  - Nerabeen dinamikak behatzeko jarraibide adostu batzuk sortu.
2. Heziketa-prozesuak aktibatu esku-hartzea garatzeko.
  - Esku-hartzearen metodologia eta ezaugarriak definitu.
  - Nerabe guztien eta bakoitzaren beharrei erantzungo dien gizarte eta heziketako esku-hartzearen jarduerak egin.
  - Arreta etengabea, egonkorra, zuzeneko eta prozesuala eskaini.
  - Talde desberdinekin esku hartu.
  - Beste profesionalengana deribatzen diren nerabeen jarraipena egin.
3. Nerabeen beharretan eta eskaeretan oinarritutako programazioa garatu beren motibazioen, kezken eta ekimenen arabera.
4. Zerbitzuaren ekintza-arloak (informazioa, orientazioa, bide-laguntza, aisia hezitzailea, adierazpenerako eta partaide-tzarako bideak eta sorkuntzarako eta produkziarako bi-

deak) aztertu, osatu, proposamenak egin eta garatu.

- Informazioa garaiz, behar adina, eraginkortasunez eta modu antolatuan eta adierazgarrian eman
  - Nerabe-izaerak ulertzen lagundu eta trantsizioak erraztu
  - Bide-laguntza eta arreta puntuala eskaini
  - Harreman eragingarriak landu
  - Nerabeen jakin-nahia eta pentsamendu kritikoa piztu
  - Sorkuntza eta hedapena suspertu eta ahalbidetu
  - Nerabeen jarrera aktiboa, kritikoa eta parte-hartzailea bultzatu
5. Zerbitzuaren presentzia beste espazioetan (kalea, loka-lak...) garatu
    - Auzo eta herri mailako gune eta espazioetara zerbitzua hurbildu
    - Nerabeen arteko harremanak sustatu
    - Bitartekaritza-lana egin beharrezkoa denean

### Produktuak

- Arreta zuzenaren memoria eta txostenak
- Lan-fitxak eta materialak
- Programazioa
- ...



## EREMU KOMUNITARIOA

1. Ikuspegi komunitarioa (osoa eta integratzailea) txertatu zerbitzuan garatzen diren jarduera guztietan.
2. Zerbitzuaren komunikazio-beharretan eta zabalkundearen lagundu.
  - Ate irekiak antolatu.
  - Dokumentu tematikoak prestatu.
  - Komunikabideak inplikatu.
  - Udalaren web gunean zerbitzuaren berri eman.
3. Komunitatean parte hartu, zerbitzuak eta nerabeek protagonismoa izateko.
  - Nerabeak dauden tokietara hurbildu.
  - Gizarte-eragileekin eta herritarrekin egon eta zerbitzua azaldu.
  - Ekimen komunitarioetan parte hartu.
  - Erlazio eta harremanetarako espazioak eta guneak sortzen lagundu.
  - Herritarrentzat hausnarketarako guneak ahalbidetu.
4. Sare-lana bultzatu, eraiki eta sustatu.
  - Sareak sortzen lagundu, elkar ezagutzeko, elkarlanean aritzeko eta proiektuak garatzeko.
  - Nerabeekin lan egiten duten gainerako sistema eta eragileekiko inplikazioa eta elkarlana sustatu.


- Tokiko eta lurraldeko foroetan parte hartu.

5. Zerbitzua komunitatean eta lurraldean txertatzen lagundu eta komunitateko eragile izan.

- Komunitatea eta bertako sistema eta zerbitzuak eza-gutu.
- Esku-hartzea beste eremuetara zabaldu.

### Produktuak

- Arreta zuzenaren memoriak eta txostenak
- Lan-fitxak eta materialak
- Web-orria
- Komunikazio-dokumentuak
- ...





## BESTEekin KOORDINATUA


1. Herriko baliabideak eta zerbitzuak ezagutu.
2. Udaleko beste sailen ezaugarrien eta jardueren ezagutza izan.
3. Komunitateko zerbitzuen artean trukatzeko den informazioa kudeatzeko sistema bat eratu.
4. Nerabeez arduratzen diren beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin koordinatu.
  - Arreta emateko modu egokiak eta eraginkorrak sortu eta partekatu.
  - Gizarte-zerbitzuekiko koordinazioan parte hartu.
  - Hezkuntza-sistemarekiko koordinazioan parte hartu.
  - Udalerrian aritzen diren beste profesionalekin sarean lan egin edo lana partekatu.
5. Aisialdiko baliabideekin koordinazioa eratu.
6. Sistemaren balio anitzeko arretaren hiru mailen arteko elkarrreragina ahalbidetu.
  - Haurrentzako zerbitzua, Nerabeentzako zerbitzua eta Gazteentzako zerbitzua: zubi-lana egin.

7. Zerbitzuaren jarraipena egiteko sortzen diren organoetan parte hartu.

- Zerbitzuaren arduradun teknikoarekin bileretan parte hartu.
- Arduradun teknikoei eta politikoei zerbitzuan egiten denaren berri eman.
- Udal mailako Foro Teknikoan parte hartu.

### Produktuak

- Baliabide-gida
- Koordinazio-bilerak
- Komunikazio-dokumentua
- Koordinazio-sistema
- ...




## ANTOLATUTAKO ZERBITZUA

1. Zuzeneko esku-hartzearen antolaketan parte hartu.
2. Datuak eta informazioa kudeatu.
  - Erabiltzaileen harrera eta sarbidea egin.
  - Dokumentazio teknikoa sortu eta eguneratu.
3. Dagozkion administrazio-lanak egin.
4. Baliabide materialak kudeatu.
  - Zerbitzuaren aurrekontua eta diru kontuak ezagutu.
  - Materiala kudeatu eta antolatu: aurreikuspena, inbentarioa, erosketak, matxurak eta mantentze-lanak, ordena eta antolaketa.
  - Baliabideak beharretara zorroztasunez egokitu.
5. Esku-hartzea egiten duen lan-taldearen koordinazioan parte hartu.
6. Lan-taldearen dinamizazioaren barruan, zerbitzuaren garapen teknikoan eta antolakuntzan parte hartu.
  - Nerabeentzako zerbitzuko hezitzaileen eta tokiko sustapen teknikarien artean harreman zuzena eta koordinazioa garatu.
  - Lan-taldearen bileretan parte hartu.
  - Entitatearen/enpresaren ordezkariarekin harremanetan jarri.
7. Koordinatzailearekin elkarlana egin.
  - Koordinatzaile teknikoarekin banakako bileretan parte hartu.
  - Lan-prozesuetan arazoak identifikatu, dokumentatu eta hobekuntzak proposatu.
8. Esku-hartzea garatzen duen ekipoaren eta koordinatzaile teknikoaren arteko hausnarketa-saioetan parte hartu, zailtasun egoeren segimendua egiteko (besteak beste, tentsio egoerak, erantzuna emateko analisia, neke fisikoa eta emozionala).

### Produktuak

- Memoriak
- Txostenak
- Arauak
- Inbentarioa
- Administrazio-dokumentuak
- Eginkizunen banaketa
- Lan-taldearen bilerak: deialdiak, aktak
- ...



## PLANIFIKATUTAKO ZERBITZUA

1. Zerbitzuaren planifikazioan, sistemaren diseinuan eta lan-tzean parte hartu.

- Funtsak eta helburuak zehaztu.
- Esku hartzeko programak planifikatu eta diseinatu.
- Jarduerak eta ekintzak denboran zehaztu.
- Behar bereziak eta zailtasunak dituzten nerabeekin egiteko esku-hartzea planifikatu.
- Planifikazio hezkidetzalea aplikatu eguneroko antolaketan, espazioaren antolamenduan, materialak erabiltzeko aukeran eta ekintzen programazioan.
- Beste espazio eta eremuetan esku-hartzea planifikatu.
- Nerabeen familiekin izan beharreko jarduketa planifikatu.
- Hezitzaileek (eta koordinatzaile teknikoak) zerbitzuaren garapenean bete behar dituzten egitekoak zehaztu: arreta zuzena eta barne-lana.
- Zerbitzuaren arauak adostu nerabeekin batera nerabeen erantzukizunean oinarritzeko.
- Ardura duten eragileak definitu (zerbitzuaren giza baliabideak eta kanpokoak).

2. Zerbitzuaren programazioa eta eguneroko jarduera planifikatu.

3. Zerbitzuaren ebaluazioan parte hartu.

- Zerbitzuaren segimenduan parte hartu Koordinatzaile Teknikoarekin batera.
- Esku-hartzearen jarraipena egin.
- Zerbitzuaren ebaluazioan parte hartu: informazioa lortzea, informazioa eratzea, ondorioak eta erabakitzeko orientabideak zehaztea, txostena egitea.

4. Giza baliabideen kudeaketan parte hartu.


- Behar eta egokitzapenak proposatu.

5. Espazioa antolatu.

- Espazioa eta baliabideak diseinatu eta banatu.

### Produktuak

- Plangintza / Ebaluazioa
- Kronograma
- Programazioa
- Eginkizunen zerrenda
- ...



## KOORDINATZAILE TEKNIKOA

Ondoren, koordinatzaile teknikoaren berariazko funtzioak azalduko ditugu, zerbitzuan ematen den arreta hobetzen lagunduko duen koordinaziorako profesional tekniko honen garrantzia handia dela kontuan hartuta.

### 1. Nerabeentzako zerbitzua

- Zerbitzuaren funtsatzea eta beharren ebaluazioa bideratu.
- Hezitzaileen hasierako eta etengabeko prestakuntzan lagundu.

### 2. Esku-hartze hezitzailea

- Esku-hartzearen analisi orokorra gidatu.
- Hezitzaile-taldea dinamizatu.
- Esku-hartzearen jarraipena egin.

### 3. Hezkuntza-markoak

- Nerabeen dinamikak behatzeko jarraibide adostu batzuk eta jarraipen-sistema bat izatea bermatu.
- Hezitzaileei aholkuak eta orientabidea eman lan hezitzailea burutzeko.

### 4. Eremu komunitarioa

- Sareko lan-sistema komunitario batean parte hartzeko inizatiba eta erantzukizuna agertu.

### 5 . Besteekin koordinatuta

- Beste eragile batzuekin koordinazioa eratu eta koordinazio-sistema definitu: gizarte-zerbitzuak, hezkuntza-zerbitzuak, kultur zerbitzuak, eta abar.

### 6. Antolatutako zerbitzua

- Hezitzaile-taldearen koordinazioa egin.
- Hezitzaileekin banakako koordinazioa egin.
- Zerbitzuaren ardura duen teknikariarekin koordinatuta lan egin.
- Lan-taldearen antolaketa ahalbidetu.
  - Zereginak eta denborak zehaztu.
  - Hezitzaileekin batera, espazioak eta jarduerak antolatu.
  - Baliabide materialak kudeatu.
- Hezitzaileei laguntza teknikoa eman, eguneroko lanari ikuspegi berriak emanez eta etengabeko hausnarketa ahalbidetuz.
- Hezitzaile bakoitzak / talde osoak zerbitzuko arlo desberdinen inguruan eginiko hausnarketak ahalbidetu, ondoren bateratze-lana egiteko.

## 7. Planifikatutako zerbitzua


- Zerbitzuaren plangintza-sistema finkatu
- Zerbitzuaren jarraitutasuna eta kalitatea bermatu

### Produktuak

- Memoriak
- Txostenak
- Dokumentazio teknikoa
- Taldeko, banakako bilerak
- ...

*Elkarteko koordinatzaile bezala proiektuaren garapena bermatzea lan-taldeak behar duen laguntza guztia emanez...*

*(Koordinatzailea)*



# Lanpostuaren azterketa

## HITZARMENA eta KATEGORIA

“2011-2014rako Gipuzkoako Esku Hartze Sozialari buruzko hitzarmen kolektiboak” barnean hartzen ditu, gure ustez, nerabeentzako zerbitzuko hezitzaileak.

1. eranskinean, hitzarmenaren funtzio-eremuko jardueren katalogoan gure arloarekin zerikusia duten lan-eremuak jasotzen dira:

- Esku-hartze psikosoziala eta gizarte-hezkuntzako esku-hartzea.
- Gizarte eta komunitate-arloko nahiz gizarte-hezkuntzako esku-hartzea.
- Gizarte-programak kudeatzeko, ikertzeko, diseinatzeko, ebaluatzeko, diagnostikatzeko eta planifikatzeko arloa.

Postuari ezartzen zaion konplexutasun eta autonomia maila handia da. Hitzarmenean jasotzen den 2. taldean kokatuko da nerabeentzako zerbitzuko hezitzailea: erdi-mailako unibertsitate prestakuntza (diplomatura edo antzekoak) edota eginkizun horiek gauzatzeko behar den trebakuntza eta esperientzia dituzten profesionalak izango dira.

## LANAREN ARRISKUAK eta INDARGUNEAK

Nerabeentzako zerbitzuko hezitzaileek enpatia eta inplikazio pertsonal handia behar dituzten pertsonekin lan egiten dute. Harremanen arloan, akidura fisikoa edo erretze profesionalaren sindromea, antsietatea, estresa eta gatazketatik eratorritako tentsio-egoerak dira arrisku nagusienak. Bestalde, giro fisikoarekin lotuta, istripuak eta zaratarekin lotutakoak dira aipagarrienak.

Arrisku-egoera hauek saihesteko, beharrezkoa da prebentzio-neurriak ezagutzea eta elkarlanerako jarrerak sustatzea.

Bestalde, nerabeentzako zerbitzuan indargune nagusiak dira hausnarketa eta aritzeko moduak beste hezitzaileekin partekatzea, lan-taldearen indarra eta beste profesionalekin batera sarean lan egitea.

## II. atala

# Konpetentziak



*Nerabeentzat eredu, erreferente positibo eta bidelagun...*

*(Hezitzailea)*

*Momentu oro laguntzeko prest egon behar gara,  
Entzuteko prest, jolasteko prest, hitz egiteko prest,  
Taldeak dinamizatzeko eta bideratzeko prest...*

*(Hezitzailea)*

*Pertsonen elkarlana sustatu, hezitzaile taldea zaindu,  
Zubiak eraiki, auto-exijentzia sustatu... koordinatu,  
Errespetatu, eskatu, inplikatu, hausnarketarako momen-  
tuak sortu...*

*(Hezitzailea)*

# Jakintzak eta Gaitasunak

Dokumentu honetan jasotzen diren konpetentziak nerabeekin gizarte-hezkuntzako esku-hartzea garatzeko beharrezkoak diren jakintzak eta gaitasunak izango dira.

Gaitasunak aztertzea lagungarria izango da ezagutzaren antolakuntza eta berrikuntza garatzeko eta zerbitzuaren baliokak eta printzipioak indartzeko. Identifikatu ditugun gaitasunek zerrenda luzea osatu dute eta, beraz, beharrezkoa izan da sailkatzea eta postuari loturikoak (espezifikokoak) nabarmentzea.

Jaso diren ezagutzak eta gaitasunak konplexutasun handikoak dira; besteak beste planifikatu eta ebaluatu egiten da, inizatibak hartzen dira eta zerbitzua berritzeko aukera ematen duen hausnarketa egiten da.

Ondoren, nerabeentzako zerbitzuan lan egiten duten hezitzaileen oraingo eta etorkizuneko funtzioak betetzeko funtsezkoak diren gaitasunak azpimarratzen ditugu:

## JAKITEA

Nerabeei eskatzen zaien arreta eta esku-hartze egokia eta profesionala garatzeko hezitzaileak behar dituen ezagutzak. Besteak beste:

- Nerabezaroaren eta nerabeen errealitatearen ezagutza.
- Gizarte-hezkuntzako ezagutza teorikoa eta metodologikoa.

- Zerbitzua kudeatzeko proiektuaren ezagutza.
- Gizarte-hezkuntzako lanaren, tekniken eta talde-dinamizazio/animazioaren ezagutza.
- Arrisku-egoeren kudeaketarako ezagutza.
- Informazioa bilatzeko, kudeatzeko eta aztertzeke ezagutza.
- Teknologia digitalaren ezagutza.
- Herriko eta lurraldeko zerbitzuen eta baliabideen ezagutza.
- Zerbitzuarekin eta esku-hartzearekin lotutako legediaren ezagutza.





## EGITEN JAKITEA

Ezagutza praktikan jartzea eraginkortasunez ahalbidetzen duten gaitasunak. Besteak beste:

- Behaketarako gaitasuna.
- Metodologia eta prozedurak aplikatzeko gaitasuna.
- Taldeak dinamizatzeko gaitasuna.
- Lan-taldean lan egiteko gaitasuna.
- Gizarte eta hezkuntzako proiektuak sortzeko eta garatzeko gaitasuna.
- Planifikatzeko, ebaluatzeko eta programatzeko gaitasuna.
- Testuinguruko eragile eta profesionalekin lan egiteko gaitasuna.
- Baliabideak (ekonomikoak, materialak eta pertsonalak) kudeatzeko gaitasuna.

## EGOTEN JAKITEA


Partaidetzazko jarrerak eta gaitasunak garatzen dituztenak. Besteak beste:

- Harremanetarako gaitasuna.
- Komunikatzeko gaitasuna.
- Loturak sortzeko gaitasuna.
- Prozesu hezitzaileak eratzeko gaitasuna.
- Hausnarketarako eta kritikarako gaitasunak.
- Etengabe ikasteko gaitasuna.

## IZATEN JAKITEA

Balio pertsonaletan zentratuak. Besteak beste:

- Laguntza emateko jarrera.
- Motibazioa eta ekimena.
- Kritikarako gaitasuna.
- Eraldatzeko nahia.
- Pertsonekin lan egiteko erantzukizun-kontzientzia.
- Konpromiso etikorako gaitasuna.



# Prestakuntza

Profilak bideratzen du hezitzaileen prestakuntza-prozesua

## HASIERAKO PRESTAKUNTZA

Postu honetarako Gizarte Hezkuntzako Diplomatura/ Gradua izatea, edo profesionalen elkargoren batek gaituta egotea gomendatzen da.

## ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

Sustapenean nerabeekin lan egiten duten hezitzaileen egungo prestakuntza-premiak zerrendatzen saiatu gara:

### 1. Nerabeentzako zerbitzua

- Nerabeei buruzko legeak, erreferentziazko bibliografia eta baliabideak ezagutzea.
- Nerabeen parte-hartzea bultzatzeko estrategiak garatzea.

### 2. Esku-hartze hezitzailea

- Arrisku-egoeran dauden nerabeekin landu beharreko estrategiak.
- Zehar-lerroak eguneroko praktikan txertatzeko irizpideak eskuratzea.

### 3. Hezkuntza-markoak

- Nerabeak eta nortasun digitala.
- Talde-dinamikaren teknikak.

- Hezkuntza afektibo-sexuala nerabezeroan.
- Drogen kontsumoa nerabezeroan.
- Sorkuntza-teknikak.

### 4. Eremu komunitarioa

- Esku-hartze komunitarioa jorratzea.
- Parte-hartze prozesuak barneratzea.

### 5. Besteekin koordinatuta

- Talde-lanean trebatzea.
- Profesionalekin komunikatzeko trebatzea.
- Hezitzaileentzat aholkularitza-guneak eta foroak sortzea.

### 6. Antolatutako zerbitzua

Lanaren antolaketa:


- Eguneroko lana antolatzeko tresnak eskuratzea.
- Denbora neurtzeko estrategiak lantzea.
- Frustrazioa kudeatzeko gaitasuna areagotzea.

Lan-arriskuen prebentzioa:

- Prebentzio-neurrien planifikazioa.
- Lehen sorospen eta larrialdiko neurriak.

### 7. Planifikatutako zerbitzua

- Planifikazioan / ebaluazioan trebatzea.




**Gaztematika**

Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistema

[www.gipuzkoagazteria.net](http://www.gipuzkoagazteria.net)

2014ko Iraila





 **GAZTEMATIKA**